

## LAUAXETA, 80 URTE

80 urte dira Gernika bonbardatu, sarraskitu eta etnozidio politikoaren sinbolo bihurtu zutela.

80 urte bete dira, handik hiru egunera Lauaxeta Gernikan preso hartu zutela kazetari frantses batzuei eta mundu osoari gertatutakoaren berri kontatzeko gidari lanean ari zela.



Eta 80 urte beteko dira, ekainaren 25ean, hemendik, Gasteizko Karmengo komentu-kartzelatik atera, eta Santa Isabel hilerriko paretan baten kontra fusilatu zutela Esteban Urkiaga komandantea, Lauaxeta poeta gaztea.

Urteurren berezi hori dela eta, Elisa Ruedaren ardurapeko “POETAK MAIATZEAN” ekimenak omenaldi bat eskaini nahi izan dio poetari, eta horretarako bi ekitaldi poetiko antolatu ditu. Lehenengoa hemen, Karmengo komentuan, garaian eta izandako bizitza laburrean kokatzeko, eta bigarrena Oihaneder jauregian gogoratuko ditugu Antton Valverderen ahots eta pianoarekin batera Laukizko poetaren poemak.

Lantaldeak, hasiera-hasierako prestaketetan hasi orduko garbi izan genuen Karmengo komentua zela marko egokiena poeta eta poemen aurkezpena egiteko. Hemen eman zituen azken orduak, hemen idatzi azken poemak, hemen azken hitz eta otoitzak.

Hemen, beraz, aletu genituen ondoren doazen ideiak eta datuak, hemen entzun eta irakurri ondorengo poemak Pako Eizagirreraren ikus-entzunezkoaren laguntzarekin, maiatzaren 5ean.




Ezaguna da Lauaxeta politikoa gure artean, ezagunak poemak eta artikulua, ez horrenbeste non eta nola pasatu zituen azken egunak.

Eta bide horretan jarri gintuen Aita Jesus M<sup>a</sup> Iturbek. Berari esker jakin genuen komentuko artxiboan aurkitzen direla militarrek egun haietan egindako espetxeratuen zerrenda eta karmeldarren komunitateko nagusia izan zen Aita Ama-liok egunez egun egindako eskuizkribu liburuxka. Hala ere, ez batean ez bestean ez da agertzen Esteban Urkiaga. Ezagutu genituen gerra garaian erlijiosoen komunitatearen eta militarren arteko harremana eta espazio banaketak, Lauaxetarekin gidaritza espirituala izan zuten Aita Sabino eta Aita Nartzisoren papera, eta azken honekin egin zuela hil aurreko azken aitortza. Bertatik bertara ikusi genituen patioa eta ziegak izan zirenak.

Gure klasiko Seneka, Jorge Manrique, edo Axularrentzat, besteak beste, bizitzaren metafora ura, ibaia da. Lizardik, berriaz, Verlaine bezala, trena hartu zuen: “*Oi lur oi lur...* idatzi zion “*bultz*”ri. Trenak garamatza, bizitzak garamatza eta laburra izan zen Lauaxetaren bidaia. Ez zituen 32 urte bete. Gel-toki eta kilometro gutxikoa, zinez. Garrantzitsuenak Loiolan eta Bilbon eman zituen Estebanek, ikasten eta lanean, harik eta gerra malapartatuak eraman zuen arte.

Loiolan izan zituen adinkide eta adiskide Jokin Zaitegi, Andima Ibiñagabeitia, Plazido Mujika, Iñaki Goenaga... Jokin Zaitegik zioen bezala, Loiolan lehendik euskaldunak zirenak euskaltzaletu egin ziren.



Loiolan, Aita Iberoren “*Ami vasco*”rekin abertzaletu ziren. Aita Errandoneari esker lortu zuten klasikoen ezagutza, baina Aita Estefania izan zen talde honen arima eta suspertzaille literarioa, dudarik gabe, Europara eta modernitatera begira jarri zituena.

Oso tutako Euskal Akademian, Euskal Elerti Bazkunan, irakurri, idatzi eta klasikoak itzuli zituzten.

23 urterekin, meza emateko gutxi falta zitzaiola, komentua utzi egin zuen.

Bilbon du, dudarik gabe une oparoena eta erabakigarriena ibilbide literario-kultural eta politikoan, 1928tik 36ra.

Hasierak, hala ere, ez ziren errazak izan, ordura arteko bizimoduari eta etorkizunari uko egin, etxera itzuli, eta bizitza berriari heldu ezinik. Hala ikus liteke, 1931ko liburuko lehen poeman: melankolian, depresioan eroria.

## GEXORIK NAGO (1931)

### Irakurlea: Zuriñe Iarritu

Zer dodan eztakit, baña gexo nago:  
gorputza aul daukot, gogua ariago.  
Arratsari nago..., itxas-urdiñari,  
lanari el-ezin, soilik ametsari.

*Zer dudan ez dakit, baina gaixo nago:  
gorputza abul daukat, gogoa areago.  
Arratsari nago... itsas-urdinari,  
lanari hel ezin, soilik ametsari.*

Barnera so-dagit: gabeko itzal-antzo,  
lexa barru ontan ezin dagit zantzo.

*Barnera so dagit : gaueko itzal-antzo,  
leize barru honetan ezin dagit oihu.*

Lar gozartu baitot bixitzaren guna:  
legor dira lorak, il maitetasuna!  
Len eder yatazan mendijen gallurrak,  
zorijon-didarra egisten edurrak.  
Oso nintzarian lurra zan ederra!  
Espanak mosuba, bijotzak eskerra.

*Lar gozatu baitut bizitzaren muina:  
lebor dira loreak, hil maitetasuna!  
Leben eder zitzaizkidan mendien gailurrak,  
zorion-deiadar egiten zidaten elurrek.  
Oso nintzenezan, lurra zen ederra!  
Ezpainek musua, bibotzak eskerra.*

Ene gogo leuna, zatorz egotara!  
Ume gexo legez zatzaz galdatara.

*Ene gogo leuna, zatoz eguzkitara!  
Ume gaixo legez etzan zaitez berotara.*

Bidazti ez beti. Ez ibilli aron.  
Bijotz aul orrek, ez gurenai yaramon.  
Zidor ori nora? Eztauko azkenik...  
Itxi, arren, eta ez leyatu goirik.  
Maitatu arratsa, landatu oroya,  
ekiñai ezinik, bildu goiz-otoya.  
Egun gitxi arren, nekatu naz oro.  
Bixitza nork txastau leikian unoro!

*Bidazti ez beti. Ez ibili alderrai.  
Bibotz abul horrek ez gauza bikainei jaramon.  
Zidor hori nora? Ez dauka azkenik...  
Itxi, arren, eta ez lebiatu gebiagorik.  
Maitatu arratsa, landatu oroitzapena,  
ekinei ezinik, bildu goiz-otoitza.  
Egun gutxi arren, nekatu naiz oro.  
Bizitza nork dasta lezake uneoro!*

Zer dodan eztakit, baña gexo nago:  
gorputza aul daukot, gogua ariago.  
Lausoz lurra dakust.

*Zer dudan ez dakit, baina gaixo nago:  
gorputza abul daukat, gogoa areago.  
Lausoz lurra ikusten dut.*

Naya mee daruat:  
ardatz-antzo yabil, lasai, arat-onat.

*Nabia mebe daramat:  
ardatz-antzo dabilkit lasai, harat-bonat.*

Etzunik banago, daurkit atsegiña...  
Pozik eztot gura, eztot maite-miña.  
Enagixu laztan, ezta be mosutu,  
atzera mosurik ezin daiket bildu.  
Neketu ez nadin eztagit negarrik...  
Eguzki galdatan, eztot nai-ixan deusik.  
Luaren dei-leunai sarratu begijak.  
Ederrak diran arren urrundu lilijak.

*Etzanik banago, aurkitzen dut atsegina...  
Pozik ez dut gura, ez dut maite-mina.  
Ez nazazu laztan, ezta ere musukatu,  
Berriro musurik ezin dezaket bildu.  
Nekatu ez nadin ez dagit negarrik...  
Eguzki galdatan, ez dut nabi izan deusik.  
Loaren dei leunei itxi begiak.  
Ederrak diren arren, urrundu lilijak.*

Zer dodan eztakit, baña gexo nago:  
gorputza aul daukot, gogua ariago.  
Arratsari nago..., itxas-urdiñari,  
lanari el-ezin, soilik ametsari.

*Zer dudan ez dakit, baina gaixo nago:  
gorputza ahul daukat, gogoa areago.  
Arratsari nago... itsas urdinari,  
lanari bel ezin, soilik ametsari.*

EAJ bihurtuko da hortik aurrerako erreferentzia Lauaxeta-  
ren bizitzan. Bi fede, erlijiosoa eta politikoa, bat eginda JELen:  
Jaungoikoa eta Lagi Zaharrak. Jelkide osoa: “*Vascos, carne de  
mi carne y sangre de mi sangre. Euzkadi tiene que ser eterna,  
pero nosotros para ella y Euzkadi para Dios*” esango digu tes-  
tamentu gisa fusilamendu aurreko gauean.

Batetik *Euzkadi* aldizkariko euskarazko orria, bestetik, al-  
derdiaren bizitza kulturala: euskarazko eskolak, mitinak, an-  
tzerki jaiak, *Emakume Abertzale Batza*...

1930ean Aitzol, Lizardi eta abarren *Euskalzaleak* taldeak  
antolatu zuen I. Euskal Olerti Egunak eman zuen ezagutzera  
poeta gaztea Errenderian, bertara aurkeztu zuen Maitale kutu-  
na poema irabazle suertatu zelako Lizardi, Orixe, Txomin  
Jakakortajarena eta beste askoren aurretik.

**MAITALE KUTUNA (1930)****Irakurlea: Uri Ruiz de Bikandi**

1.-Iñoiz ikusi bako maitale kutuna  
neure opa samurrok laztanduten dabe.  
Begi gelgarriz dargist bijotzeko iluna,  
eta bere larrosak usainduten nabe.  
.../...

*Inoiz ikusi gabeko maitale kutuna  
neure desira samurrok laztantzen dute.  
Begi miresgarriz argitzen dit bibotzeko iluna,  
eta bere arrosek usaintzen naute.*

3.-Garbitasun usaña txakijan dixuri,  
eta lo-dagonian ametsezko irrijak  
aboko larrosetan dagerkoz urduri.  
Aiztatzat alai dartu zelaiko lilijak.  
.../...

*Garbitasun usaina isurtzen du,  
eta lo dagoenean ametsezko irriak  
aboko arrosetan agertzen zaizkio urduri.  
Abizpatzat alai hartzen du zelaiko liliak.*

5.-Sarri billauko neban bixitza bidian  
ta edertzat aitortu beraren gorputza,  
nok baña dasayoke begijen aurrian:  
—Maite audana, ete az neure neskutza?  
.../...

*Sarri bilatuko nuen bizitza bidean  
eta edertzat aitortu beraren gorputza,  
nork baina esan diezaioke begien aurrean:  
—Maite haudana, ote baiz neure neskatxa?*

7.-Indar ixilkor batek batzen dauz goguak;  
itzak loitzen ditubez maitasun gurenak.  
Barre alayak ezik, barruko malkuak,  
zale oneintzat dira antzikur gardenak.  
.../...

*Indar isilkor batek batzen ditu gogoak;  
bitzek lobitzen dituzte maitasun nobleak.  
Barre alaiak ezik, barruko malkoak,  
zale honentzat dira ispilu gardenak.*

9.-Aldi alaitsu ori jadetsi artian  
neure ezkongai bailiran neskatil danari  
begirutzen dausiet dagidan bidian.  
Neska polit bakotxan zakust ameslari.

*Aldi alaitsu hori lortu artean  
neure ezkongai bailiran neskatila denei  
begirutzen diet dagidan bidean.  
Neska polit bakoitzean ikusten zaitut ameslari.*

10.-Bestiak zeure ederra goratuten dabe,  
eurentzat gelgarriak soin orren pitxiak.  
Baña zeure zalian indartuten nabe  
begi polit samurren leuntasun izpijak.

*Besteek zeure ederra goratzen dute,  
eurentzat miresgarriak soin borren pitxiak.  
Baina zeure zale izatean indartzen naute  
begi polit samurren leuntasun izpiek.*



Handik gutxira, 1931n, argitaratu zuen lehen liburua: Bide barriak. Eztanda egingo du euskal literaturak bide berrietara, ordura arte egiten ez zen erromantizismo kultu eta jantzira. Berriak ziren gaiak, maitasun iragankorra, existentzialismoa, heriotzari beldurra; eta berria zen hizkuntza, gogoko zituen Frantziako sinbolistak eta garaiko Espainiako 98ko eta 27ko generazioak eredu hartuta.

Liburuak hasieran harrera ona izan bazuen ere, berehala piztu zen eztabaida poesia berria eta herrikoigoaren aldekoen artean, azken hauek Orixe eta Aitzolen eskutik; eztabaidak bihiak eta publikoak izan ziren, mingotsak ere bai, askotan.

Lau urte joan ziren Arrats beran, bigarren liburua argitaratu arte. Tartean gauza asko: Lizardik “*Bihotz begietan*” liburu go-goangarria atera, eta handik gutxira hil egin zen; Orixe Lauaxeta “Euzkadi” aldizkariko euskarazko orrien buru utzi, eta “Euskaldunak”, bere obra nagusia, euskaldunen poema epikoa izan behar zuena idaztera erretiratu zen; euskal letretan poesia herrikoigoaren aldeko joera indartu egin zen.



Poeta helduago ageri zaigu bigarren honetan. Forman al-daketak agerikoak dira, lehengo poesia pertsonalak, intimistak soila zuen jantzia. Oraingoan baladak, erromantzeak, historia poetikoak aurkituko ditugu sarri.

## LANGILLE ERAILDU BATI (1935) *HILERAZITAKO LANGILE BATI*

**Irakurlea: Jon Kortabarria**

Ene Bizkaiko miatze gorri  
zauri zarae mendi ezian!  
Aurpegi balzdun miazarijoi  
ator pikotxa lepo-ganian.  
Lepo-ganian pikotx zorrotza  
eguzki diz-diz ta mendiz bera,  
ator bideskaz, -goxa sorbaldan-,  
kezko zeruba yaukon olera.

Opor-otsa dok txaide zabalán  
-ukabil sendo soñanzki urdin-  
jaubiak, barriz, nasai etzunda,  
laguntzat auke, i, urrutizkin.  
Aurpegi balzdun miazarijoi  
ari bitartez deyak yabiltzak.  
Bideskan zelan dir~dir yagiek  
txapel-okarren kapela baltzak!  
Orreik yaukoen gaizkin-itxura  
sispá luziak lepo ganian!  
Ene Bizkaiko miatze gorri  
zauri zarae mendi ezian!

Mendiz bera lau txapel-okerre  
aurpegi balzdun miazaria.  
Begi baltz, orreik sastakai dozak  
baña zatitu ezin esila  
Noruntz aroe esku lotuta  
burni margodun gorputz gogorroí.

*Ene Bizkaiko meatze gorri,  
zauri zarete mendi bezean!  
Aurpegi belzdun meatzarioi,  
hator pikotxa lepo gainean.  
Lepo gainean pikotx zorrotza,  
eguzki diz-diz ta mendiz behera.  
Hator bideskaz -goiza sorbaldan-,  
kezko zerua daukan olara.*

*Opor-hotsa duk kale zabalean,  
-ukabil sendo, soineko urdin-,  
jabeak, berriz, lasai etzanda,  
laguntzat haukate, bi, urrutizkin.  
Aurpegi belzdun meatzarioi,  
hari bitartez deiak zebiltzak.  
Bideskan nola dirdir zegitek  
txapel-okarren kapela beltzek!  
Horiek daukaten gaizkin itxura  
zizpa luzeak lepo gainean!  
Ene Bizkaiko meatze gorri,  
zauri zarete mendi bezean!*

*Mendiz behera lau txapel-okerre  
aurpegi belzdun meatzaria.  
Begi beltz horiek sastakai dituk  
baina zatitu ezin hesia.  
Norantz haramate esku-lotuta  
burdina margodun gorputz gogorroí?*

Sendua baintz etsai-odolez  
bustiko eunkek pikotx zorrotzoi!  
Nerbion ertzok -tranbi dardara-  
azkatu navez zenbat alegin!  
Baña olaen zarata-artian  
aren aiotsik aditu ezin!  
Sispa luziak sutan yagozak,  
-opor zarata txaide zabalán-  
Aurpegi balzdun miatzaríjoi  
igeri adi euren odolán ...!  
Txapel-okerrak edango yabek  
ardao onena Gomez-etxian.

Ene Bizkaiko miatze gorri  
zauei zarae mendi ezian!

*Sendoa bahintz, etsai odolez  
bustiko bukek pikotx zorrotzoi!  
Nerbion-ertzok-tranbi dardara-,  
askatu nabiz, zenbat abalegin!  
Baina olen zarata artean  
haren aihotsik aditu ezin!  
Zizpa luzeak sutan zeudek,  
-opor-zaratak, kale zabalean-,  
Aurpegi beltzdun meatzaríoi,  
igeri badi beure odolean...!  
Txapel-okerrekek edango diate  
ardo onena Gomez-etxean.*

*Ene Bizkaiko meatze gorri,  
zauri zarete mendi bezean!*





## ZELAYAN (1935)

**Musika eta ahotsa: J. R. Arbe**

Lora-billa neskea  
larrarantza dua.  
Bera loretan lore,  
lore gorengua.

Ene mattia,  
zelaiko galpidia!  
Larratik itun dator,  
itun, bai, neskea.

Miñez dozu barrena,  
negarrez bijotza.  
Bijotz-barruban dozu  
arantza zorrotza.

## ZELAIAN

*Lore billa neskatxa  
larrerantza doa.  
Bera loretan lore  
lore gorengoa.*

*Ene maitea  
zelaiko galbidea!  
Larretik itun dator  
itun, bai, neskatxa.*

*Minez duzu barrena  
negarrez bihotza.  
Bibotz barruan duzu  
arantza zorrotza.*

Ene gaxua,  
illun dozu gogua!  
Zeure matrail-lorea  
zimeldubaz dua.

Lore-billa neskea  
larrarantza dua.  
Lora-billa jutian  
galdu dau gogua.

Ene mattia,  
zelaiko galpidia!  
Loretan lore zanak  
galdu dau beria.

*Ene gaxua  
ilun duzu gogua!  
Zure matrail-lorea  
zimelduz doa.*

*Lora bila neskatxa  
larrerantza doa.  
Lora bila joatean  
Galdu du gogoa.*

*Ene maitea  
zelaiko galbidea!  
loretan lore zanak  
galdu du berea.*

Lauaxeta, idealismo erlijioso eta politikoa hezitutako gizona dugu, eta poesia zen pertsonak eta gizartea eraberritzeko tresna. Estetika sinbolistak eta pedagogia politiko-erlijiosoak bat egiten dute poetaren helburuetan.

Beti entzun, eta esan ere egin dugu, Lauaxeta poeta zaila dela, ez dela errez ulertzen etab. Egiaren alde esan beharko genuke poeta on errez gutxi dagoela, edozein hizkuntzatan. Poesiarekin adierazten da hizkuntzaren esentzia, intentsitate gorena sentimendutan eta trinkotasunean, eta horrek guztiak tarte txikia uztez dio gure errez ulertze gogoari. Bestetik Lauaxetak, aranismo politiko eta linguistikoa jarraitzaile sutsuak, bere garaiko, inguru eta hautu pertsonaleko hizkerarekin ez dizkigu gauzak asko errazten.

Poemario honetan, **“Arrats beran”**, antzematen da Juan Ramón Jimenez eta, batez ere, Lorcaren “Romancero gitano”ren eragin poetikoa. Hemen kokatu beharko genituzke egindako Granadako poetaren poema batzuen itzulpenak eta Bilbon izandako ustezko harremana.

Azken-aurreko bidaiak Gernikako geraleku birrindutik Gasteizeko azken estazio ondora, Karmengo espetxera ekarriko du.



Esteban Urkiaga, intendentzia komandante, Eusko Jaurlaritzaren lan kulturalaren arduradun izango dugu: propaganda arduradun bezala, *Gudari* aldizkarian eta gure historian euskaraz hutsez idatzitako lehen egunkariaren sorreran, *Eguna* egunerokoan, izugarritzko eragina izan zuen, nahiz eta badakigun gutxi idatzi zuela egunkariaren sei hilabeteko historia laburrean.

Lan hauek eraman zuten Gernikara, Gasteizera eta heriotzara.

Hortik aurrerako guztiak hemen gertatu ziren. Bi hilabete egin zituen kartzela honetan, hemen idatzi zituen azken poemak, otoitz poetikoak eta eskutitzak. Batzuk euskaraz, besteak gazteleraz. Ezagunenak “Agur, Euzkadi”, “Azken oyu”,

“Ven, Señor!”, “Envío”... Dozena bat poema dira iritsi zaizkigunak.

Zer gelditu da horretatik guztitik, zergatik iritsi zaigu, erahil ondoren 80 urtera, pertsona honen sona eta memoria? Hari horri helduta egin zigun Bernardo Atxagak bere hausnarketa.

Historia liburu famatuenetako batean agertzen bada ere gaitibu egin zuten Gernikako gidariaren istorioa, ez, ordea, Urkiaga komandantea, Lauaxeta euskal poeta zela gidari hori. Historiak jan egin zituen gidari haren izena eta lana kanpotarrentzat. Barrukoentzat ere desinformazioa eta gezurra nagusitu egin ziren urte askoan. Eta Lauaxeta, eta bera moduko asko, urtetako isiltasunak eta ahanzturak bigarren heriotza zigorrrera kondenatu zituen.

Horrek guztiak, hala ere, ez du erabat desagerrarazi, zorioenez, benetako historia, eta Lauaxeta gudari eta poeta mantendu egin da giro hurbil eta berezietan, alderdikide, lagun, literaturazaleen artean, harik eta memoria errekuperatzen hasi garen arte.

Badira faktore batzuk haren memoria mantentzen eta berreskuratzen lagundu dutenak. Erahila izanak, bortizki eta gerran beste hildakoengandik nabarmenduz, esanahi berezia eman dio pertsonaiari. Obra poetikoa eta jardun kulturala euskaraz egin izanak garrantzitsuagoa egin du, euskaldunon artean behintzat. Obra poetikoa azken urteetan kantatua izanak, Lauaxetaren kasuan bezala, oroimen pertsonalari zein kolektiboari balio erantsi moduko bat ekarri dio.

Eta ekainaren 25ean, esan dugu hasieran, atera zuten hemendik Santa Isabeleko pareta baten kontra, ez dakigu non zehatz-mehatz, fusilatzeke.

**AZKEN OYUA (1937)****Musika eta ahotsa: Antton Valverde**

Enara batek bezela gastetasunak narua  
 eta eguak zabalik gorantza juat gogua.  
 Oraindik eztoz il-gura,  
 bixitzaue yatan leguna!  
 maite dau bijotz gaxuak ene aberri kutuna.

Goiz eder onetan erail bear nabe  
 txindor baten txintak gozotan naukela?  
 El naiten leyora begiok intz gabe.

Gorbei barna yatorñ kañoi-ots itzela:  
 or egazkin-egak odei-lapur doaz.  
 Guda-gotzon balzak odolez dakustaz,  
 euren oin aurrean beredin gudari.  
 Gaste argi orreik, eutsi lur amari!  
 Bera baizen onik eztauko ludiak.

Eta begi onein laño leyartuan  
 tinki igaro beitez gizuren argiak;  
 esku zurbil oneik aul luzatu bediz  
 eutsi zagientzat, ikurrin donea.  
 Azkatasun atsak betiko bil zagiz!  
 Antxe makur zaite, oi buru neurea,  
 geure lur amaren besarte gozoan!  
 Eta anai maiteok, eutsi burrukari  
 inoiz ilgo eztan euzkoen amari.  
 Itxaropen auxe sort bekit gogoan.

*AZKEN OIHUA*

*Goiz eder honetan bil bebar naute  
 txindor baten txintek gozotan naukatela;  
 hel nadin leihora begiok ihintz gabe!*

*Gorbea barren datorkit kainoi-bots itzela;  
 hor hegazkin-hegak hodei-lapur doaz.  
 Guda aingeru beltzak odolez dakuskit  
 haien oin aurrean beredin gudari.  
 Gazte argi horiek, eutsi lur amari;  
 bera baizen onik ez dauka ludiak!*

*Eta begi hauen laino kristalduan  
 tinki igaro bitez gizonandi argiak;  
 esku zurbil hauk abul luza bitez  
 euts zaitzaten ikurrin donea;  
 askatasun atsak betiko bil zaitzala!  
 Hantxe makur zaite, oi buru nirea,  
 geure lur-amaren besarte gozoan!  
 Eta anai maiteok euts burrukari,  
 inoiz hilko ez den euskoen Amari.  
 Itxaropen hauxe sort bekit gogoan.*

Jauna, eriotz au arren emostazu;  
koldarrentzat itxi larrosen usaña.  
Azkatasun deuna bial egistazu,  
atzindu nai dot ba arrotzen iraña,  
gorputz onek bakez atsedean dagian  
erri azkatuen Egun-Aundi arte!  
Gudan jaus nadilla zuzentzaren alde,  
ez ormari atzez, goiz eder argian.

Eta bake deuna sortuko danean  
neure azur utsak besteenakin batu;  
eresi gurenaz lagundu bidean  
obi bakar-arte.  
Baña, arren, bukatu  
oroigailuaren maitasun itzala  
Kistoren gurutzat; Beragan ditxarot.  
Josu'ren fedea besterik eztaukot.  
Erri zintzo-onenak zaindu dagiala  
il gintzanan atsa, il gintzanan ala.

*Jauna beriotza bau, arren, emaidazu:  
koldarrentzat utzi larrosen usaina,  
askatasun donea bial egidazu,  
abaztu nabi dut, ba, arrotzen iraina.  
Gorputz honek bakez atsedean dezan  
berri askatuen Egun-Handira arte.  
Gudan eror nadilla zuzentasunaren alde,  
ez ormari atzez, goiz eder argian.*

*Eta bake donea sortuko danean  
nire bezur butsak besteenekin bil;  
eresi gurenaz lagundu bidean  
hobi bakarera arte.  
Baina, arren, buka  
oroitzapenen maitasun itzela.  
Kristoren gurutzeaz, beragan itxaroten dut,  
Jesusen fedea besterik ez daukat.  
Herri zintzo onenak zaindu dezala  
bil ginenon batsa, bil ginenon abala.*

Iritsi gara amaierara. Orain arte, entzun, irakurri, gure egin ditugu Lauaxetaren poemak. Gure-ago egiteko eta datorren asteko saioa prestatzen hasteko, proposatzen dizuegu A. Val-verderekin batera kantatzea ziurrenik poetaren mezurik eza-gunena: *Dena emon biar yako matte dan askatasunari.*



## AZKEN MENDIGOXALIARENA (1935)

Mendi eze, ikurrin eder,  
azke nai zattut axian.  
Amar gasteren lerdena  
makilla luzez bidian!

Mendi-bitxidior berdiok,  
arin or duaz kantari:  
«Dana emon biar yako  
matte dan azkatasunari».

Eta ixil dago arratsa  
Euskadi'ko lur-ganian.  
Amar gasteren lerdena  
makilla luzez bidian!

Gastedi orren didarra  
bai-dala didar zolija!  
Aberri baten samiñez  
urduri dabil errija.

Azkatasun-goxalderuntz  
sugarra dira basuak.  
Sugarra basuak eta  
zidar argija itxasuak.

Or duan ozte-aldrea  
aberri-minez kantari:  
«Dana emon biar yako  
matte dan azkatasunari».

## MENDIGOIZALEARENA

*Mendi beze, ikurrin eder,  
aske nahi zaitut haizean.  
Hamar gazteren liraina  
makila luzez bidean!*

*Mendi-bideska berdeok,  
arin hor doaz kantari:  
«Dena eman behar zaio  
maite den askatasunari».*

*Eta isil dago arratsa  
Euskadiko lur-gainean.  
Hamar gazteren liraina  
makila luzez bidean.*

*Gaztedi borren deibadarra  
bai dela deibadar zolia!  
Aberri baten saminez  
urduri dabil berria.*

*Askatasun goizalderantz  
sugarra dira basoak.  
Sugarra dira basoak  
eta zilar argia itsasoak.*

*Hor doan oste-araldea  
aberri-minez kantari!:  
«Dena eman behar zaio  
maite den askatasunari».*

Gaste orreik goruntz duaz  
abesti eta ikurriñez.  
Lañuan baño tiro otsak:  
bedartza dager odolez.

Ikaraz duaz usuak,  
mendija dago ixillean,  
Amar gasteren lerdena  
bixitza-barik lurrean!

Eta illuntziko bakian  
norbattek darrai kantari:  
«Dana emon biar yako  
matte dan azkatasunari.»

*Gazte horik gorantz doaz  
abesti eta ikurrinez.  
Lainoan baina tiro hotsak  
belartza dager odolez.*

*Ikaraz doaz usoak,  
mendia dago isilean.  
Hamar gazteren liraina  
bizirik gabe lurrean!*

*Eta iluntzeko bakean  
norbait darraio kantari:  
«Dena eman bebar zaio  
maite den askatasunari.»*

Amaitu aurretik eskerrak ematea tokatzen zaigu, jende as-  
ko eta lan handia egon baita saio xume honen atzean.

**Poetak maiatzean** egitasmoari, Lauaxetaren ingurura ekarri gaitue-  
lako. Elisa Ruedak eman dio arima.

Gasteizko El Carmen komentuko arduradunei eta bereziki **Jesus  
Mari “Garai”ri** eskaini digun laguntza guztiagatik.

**Esteban Urkiaga, “Lauaxeta” ri**, bera baita hemen egoteko arra-  
zoia. Bere poemei esker gozatu eta sufritu egin dugu.

Testu moldaketak: **Bitoriano Gandiaga, Xabier Galarraga, Patxi  
Salaberri Muñoa**

Musika: **Antton Valverde, J. R. Arbe, Maite Gomez, Arantzabela  
Abesbatza**

Irakurleak: **Pako Eizagirre, Zuriñe Iarritu, Uri Ruiz Bikandi, Jon  
Kortabarria, Bittor Agirre, Elisa Rueda**

Gidoia eta Muntaia: **Xabier Galarraga, Pako Eizagirre**

Hizlariak: **Jesus M<sup>a</sup> Iturbe Garai-Iurrebaso, Bernardo Atxaga, Xabier Galarraga**

Teknikariak: **Pako Eizagirre, Gasteiz Kantuz**

Eta, nola ez, zuei ere bai, etortzeagatik eta Lauaxeta gurekin batera gogoratzeagatik.



*Xabier Galarraga 2017-05-24*